

Teatro-hizkera euskaldun barri bizkaitar baten begiradatik

Patxo Telleria

Idazlea
patxotelle@euskalnet.net

Abstract

Each literary field has its own language. Sastre has called “parlatura” the way of talking in the dramatic field. The question is: what kind of language has to be? What kind of language would it be in the case of a new speaker of Basque language who wants to adapt it to the ears of Basque native speakers from Lekeitio?

Laburpena

Literatur esparru bakotzak bere mintzamoldea dauka. Sastrek "Parlatura" deitu eutsan antzerkiaren berbetari. Orain: Zelakoa behar dau izan? Zelakoa Bilboko euskaldun barri nahi Lekeitioko euskaldun zaharraren belarrietara egokituko bada?

Keywords: teatro-hizkera, aldakortasun linguistikoa

Hitz gakoak: performance, linguistic variation

Egun on guztioi. Teatroa idazten dut. Ezin esan daiteke ogibide prosperoa denik, baina bai behintzat duina.

Teatroa idazten dudala esan dut, baina “teatro idazlea” esamoldeak badu berezko kontraesan bat, teatroa ez baita irakurtzen. Teatroa ez da textoa. Aristotelesek bere garaian ezarri zuen teoriaren arabera (harrigarria bada ere gaur egun oraindik indarrean jarraitzen duena), sei elementuk osatzen dute teatroa: gertaera, pertsonaiak, ideia, hitza, irudia eta musika. Hitza, beraz, osagaietako bat da, teatro molde jakin batzuetan osagairik importanteena, (Valle Inclan, Lorca); beste batzuetan berriz, gertaera da garrantzizkoena (Bertold Brecht); bestetan musika (Komedia musikala); edo irudia, dela eskenografikoa (Nieva), dela koreografikoa (Tadeus Kantor)... Eta hitza garrantzizkoena den kasuetan ere, hitza antzerkian esan eta entzutekoa da, ez irakurtzekoa. Beraz

Bertold Brecht-ek esan omen zuen, Shakespeareren teatro lanei buruz: “Lastima irakurtzean ere ederra izatea, hori da duen akats bakarra”. Esaldi tremendistegia da, akaso, baina adierazkorra oso.

Alfonso Sastrek “parlatura” neologismoa asmatu du, gure lanbide hau definitzeko, eta literaturatik aldentzen gaituena azpimarratzeko. Teatroa ez da literatura, parlatura baizik. Gainera idatzitakoa beti da borradore bat; testuak ez du errebalida gaintitzen harik eta aktorearen ahotan moduz ahozkatzen den arte.

Luigi Pirandello teatro egile handiak “eskenatokitik idatzi beharra” azpimarratu zuen. Konpainiarekin elkarlanean idazten zuen, kamerinoetan, banbalinetan, entsaioetan berridazten zuen, estreinatuta artean azken minuturaino zuzenketak egiten zituen, eta estreinatuta

ostean ere. Sona handiko istilu bat izan zuen behin aktore batekin, eskenara atera baino apur bat lehenago hiru horrialdeko testu berria ikasi arazi nahi izan zionean.

Orain arte testuari buruz orokorrean aritu naiz, baina jakina, testua hizkuntza jakin batean isurtzen da, eta hemengo kasuan, askotan hizkuntza bitan. Ni pertsona elebiduna naiz, eta idazle ekebiduna ere. Hau beste arte esparruetan bitxia sueta daiteke: poeta bat nekez izan daiteke poeta bi hizkuntzatan. Poesia eta hizkuntza erro errotik loturik daude. Antzerkian berriz gerta daiteke esan dugun bezala, hitza sei elementuetako bat besterik ez delako, eta gainera gehienetan. Horregatik ez dut inolako eskizofreniarik sentitzen hizkuntzak erabiltzeko orduan. Nire testurik gehienetan hizkuntza istorioa adierazteko tresna bat da, “edukitzailea” eta ez “edukia”, “forma” eta ez “mamia”, “funtzio adierazlea” “funtzio poetikoa” baino gehiago, eta beraz ez dute nostasunik galtzen hizkuntza batean zein bestean (adibidea onartzen bazait, Bertold Berchten lan bat berdinean ulertzen da, hau da, ez du ezer galtzen alemanez, ingelesez nahiz euskeraz esana). Dena den, salbuespenak badituz:

Badaukat gaztelaniaz idatzitako testu bat, “Torito bravo”, euskerara itzuli ez dudana, pentsatzen nuelako, pentsatzen dudalako, itzulita asko galduko lukeela, hau da, hitzak bazuela bere garrantzia, edukitzaileaz gain, “edukia” ere zelako funtzio poetikoa betetzen zuelako. Zertaz ari naizen uler dezazuen, fragmentoren bat irakurriko dizuet:

(...) ¿Repasamos la última lección?

Lunero.

Son toros malos para la lidia... El aplomado, que acusa el castigo; el apurado, que carece

de poder; el avisado, que va al bulto; el blando, que huye del caballo; el huido, que busca la salida; el manso, que parece un cabestro; y el quedado, que arremete pero se queda corto.

Son toros buenos, el ahormado, que arremete de lejos; el boyante, que es claro, noble y franco; el bravo, que acomete con rabia, cara a cara; el crecido, que se crece con la lucha; el entero, que no se cansa nunca; el noble, que sólo hace caso del engaño; y el pronto, que acude rápidamente al mandato del torero.

Percatao.

¿Merecen estos toros el indulto?

Lunero.

No.

Percatao.

¿Por qué?

Lunero.

Porque una sola de esas cualidades no es suficiente.

Percatao.

¿Cómo hay que ser para conseguir el indulto?

Lunero.

Ahormado, boyante, bravo, crecido, entero, noble y pronto a la vez.

Beste adibide bat jarriko dizuet, baina oraingoa kontrakoa, euskeraz idatzitako lan bat, beste hizkuntzataraz itzuli ezin daitekeena, baina oraingoa arrazoi desberdin bategatik: "Euskera sencilloaren manifestoa"koa da, non euskaldunberri biren nahigabeak kontatzen diren.

Guk, Euskaltzaindi Berriko Gramatika batzordeak, ikasleen egoera penagarriaren aurrean, aldarrikatzen dugu: Ikaslearen bizitza laburra dela. Euskaldunizazioa, berriz, luzeegia. Ikasle baten bizitza esperantza hirurogei urtekoa da. Euskera ikasketa prozesu osoa ehun eta hogeitau urtekoa. Beraz, ikasle batek bi bizitza behar ditu euskalduntzeko. Gauzak horrela, ikasleak bi aukera besterik ez ditu: reenkazazioa edo klonazioa. Egoera hau konpontzeko, Euskaltzaindi berriak EUSKERA SENCILLOAREN MANIFIESTOA aldarrikatzen du.

Lehenengo puntua. Bokabularioa: Munduko hitz guztiak anai, berdin eta

libreak dira, eta eskubide berdinak dituzte. Esanahia kontextuagatik ulertuko da. Por lo tanto, tout le mondeko parole guztiak usatzeko derechoa daukagu, eta no one ez da marginatuko, sexo, religione, politique, stronhausen, osotogari, lumumba edo idiomagatik.

Bigarren puntua. Pronunziazioa: Tz, Ts eta Tx berdinak dira legearen aurrean. Esanahia kontextuagatik ulertuko da. Esatebaterako: Berorik eza: (Hotzez dardarka) Ufff ze hochha!! Zarata.(Belarriak estaliz) Uff, ze hochha!!

Hirugarren puntua. Deklinabidea. Hitz guztiak libre bizitzeko eskubidea dutenez, deklinazioaren uztarritik askatuko ditugu. Esanahia kontextuagatik ulertuko da. Esatebaterako. "Etxe ak" ("Gorputz expresioz" aniztasuna adieraziz) "Etxe." "Etxetik." (Jatorria adieraziz) "Etxe" "Etxera." (Norabidea adieraziz) "Etxe."

Laugarren puntua. Aditza denboraren uztarriaz libratzeko, konjugazioa aboliturik geratuko da. Esanahia kontextuagatik ulertuko da. Esatebaterako. "Ikusten zaitut" (Mimikaz lagundurik) "Ni zu ikusi." "Ikusi zintudan." (Iragana adieraziz) "Nik zu ikusi." "Ikusiko zaitut." (Geroa adieraziz) "Nik zu ikusi." "Ikusiko bazintut, agurtuko nizuke." "Nik zu..." Kontestuagatik ulertuko da.

Boskarren eta azken puntua: Lege berri hauek datorren ikasturtean AEKko klase guztietan ezartzea exijitzen dugu. Bilbaon 2002ko Maiatzak hogeitabian. Euskaltzaindia hil da. Gora Euskaltzaindia!!

Kasu honetan, ez da hizkuntza itzuliezina suertatzen dena, baizik eta hizkuntzaren errealtate soziologikoa.

Idatzi ditudan gainontzeko testuak, nahiz eta hizkuntza bietan antzestu, euskaraz sortuak ditut. Euskeraz idazteko preferentzia daukat, arrazoi birengatik:

Batetik, "bete beharreko arau" bat deuseztatu nahi nukeelako, esaten duena herri honetako konpainiek lanak gaztelaniaz sortu, entsaiatu eta estreinatu behar dutela, eta gero erlojupean, presaka eta motibazio gutxiagorekin –lana jada estreinatuta baitago– euskerazko bertsioa prestatu, bigarren bertsio honen kalterako.

Bestetik uste dudalako nork bere lana, bere ofizioa planteiatzeko unean, bere tokia aurkitu behar duela, bere tartea. Eta gaztelaniazko teatroak badu (eritziak gora behera) iragan sendoa eta orainaldi itxuroso xamarra. Euskerazko antzerkiak iragan negargarria du eta orainaldi zalantzakoa. Nik neure harri kokkorra ezarri nahi dut euskal teatroa suspertzeko.

Euskaldunberria naiz, nire euskera ez omen da jatorra. Agian neuk ere ez dut nire euskera jatorregia izaterik nahi. “Garbizaletasuna”-ren kontrako nire jarreragatik, baliteke “antipurismo” gehiegizko baten mugaren ondo ondoan geratzeko arriskua izatea, baina aukeran nahiago dut nire berba zikintzea ulermenaren alde, ezen ez euskera eder eta jator bat erabiltzea ulermenaren kaltetan. Gogoratu beti ere antzerkian entzunaldi batean ulertzen ez duguna ez dugula berriz entzuteko aukerarik izaten, ez dago atzera egiterik, ez dago hiztegiaren bila ibiltzerik. Euskera errezaren aldekoa naiz, eta nire ambizioa, errezatasuna eta edertasuna uztartzea litzateke (ez da ezinezkoa, inondik inora, Bernardo Atxagaren hizkera aberats bezain itxuraz apala dugu adibiderik argiena)

Niri, antzerkian “funtzio poetikoa” baino gehiago interesatzen zait “funtzio komunikatiboa”, alegia, nik kontatu nahi dudana istorioa publikoak ulertzea nahi dut, ahalik eta jende kopururik handiena. Eta horretarako batzuetan gauza batzuei amore eman behar zaizkio.

Aditz konplexuak erabili beharrean nahiago dut nominalizazioetara jo, eta ez bakarrik ulergarriagoa delako, estetikoki ere atseginagoak ditut. “Hika” gutxitan erabiltzen dut, nire giroan (Bilbaon) oso arrotza suertatzen zaidalako. Bizkaierazko hitzak, moldeak eta espresabideak erabiltzen saiatzen naiz, ez bizkaitartasun gehiegizko bategatik, ezpada hizkuntzaren aberastasunaren aldekoa naizelako. Eta batez ere idazkera erreza da nirea, zuzentasuna bilatzen duena.

Gainera kontutan hartu behar dugu ere norentzat ari garen. Akaso ni Bilbotarra izateak badu eragina nire ikuspuntuan, baina nik oso kontutan hartzen dut euskerazko teatroa doan jendearen artean badagoela portzentai bat dena ulertuko duena; beste bat ia dena ulertuko duena; eta beste bat apur bat ulertuko duena. Goizuetan antzezten badut, dena ulertuko dutenen ehunekoa altua izango da; Barakaldon, agian altuena nekez ulertzen dutenen kolektiboak emango du.

Eta diferentzia nabarmenak somatzen ditut publikoan, euskeraz egitean edo erderaz. Jarri dezagun adibide bat. Komedia bat, komedia batekin errezago neurtzen da publikoaren erantzuna, barreak dira neurria. Komedia, “Kontenedore Baten Istorioak”. Komedia honetan umorea dialogoetan datza, ekintzetan baino gehiago, oso berbaro trinkoa du, elkarrizketa azkarrak, askotan absurdo samarra... Euskeraz sortua da, eta

emanaldirik gehienak euskeraz eginak ditugu. Eta hala ere, erderaz egiten dugunean, barre gehiago lortzen dugu. Zergatik? Hobeto egiten dugulako gaztelaniaz? Baliteke, baina ez da horregatik. Erantzuna, diglosian datza. Lehen aipatu dugun publikoaren egoera soziolinguistikoari leporatu behar zaio alde.

Eman dezagun adibide bat. Artista pedante baten karikatura dugu hemen, ea nola azaltzen digun batek bere artearen nondik norakoa.

Instalazio “nolabait” bat artista baten espresabiderik “demagun” libreena da. “Honenbestez”, edozer kabitzen da instalazio “alegia” batean.

Nire “zergatik ez” instalazioa, instalaziorik “nolabait” ez egotean datza. Alegia, instalaziorik eza da nire instalazioa. Hemen ez dago alegia, ikuslerik, publikoak nolabait berak sortzen du artea esan dezagun... bere nola edo hala irudimenean.

Testu hau euskeraz pentsatu eta sortua da. Eta hala ere, erderazko bertsioa errezago jasotzen du publikoak, kalitate literarioa gora behera:

En una “llamémosle” instalación el artista se “por qué no” expresa, con absoluta “de alguna manera” libertad de formato y “en cierto modo” temática.

Mi “por qué no” instalación consiste en que “en cierto manera” no está, es decir, es la “en fin” ausencia, la “digamos” negación de instalación lo que constituye la “en última instancia” instalación en sí. En mi “pongamos” universo creativo, no existen “en suma” espectadores; el “por qué no” público crea la “de alguna manera” obra de arte en su “llamémosle” imaginación.

Nire testuetan komunikazio primatzen dudala esan dut. Hala ere, funtzio poetikoa ere zaintzea atsegin dut. Nire testuetan hizkuntzarekin jolastea atsegin dut. Pertsonaia zer izan, hizkuntza ere egokitu egitea atsegin dut.

“Birus” ikuskizunean pertsonaiak “ente informatikoak” ziren. Horrela hitz egiten zuen “birus informatiko” batek:

Galvanizatu ditzagun, kaguen Edison! Goazen! Erne ibili anperiojoleak, pentiumkume madarikatuok. Sortu ninduen disketera lekuko, zin dagit borrokan jarraituko dudala azkeneko anperioa xahutu arte. Eta orduan entzungo da voltioen

karraska eta zirkuitoen krikikraka, pikutara sistema bitarra! (...) Tintatxorroko inprimadora bat! Bikain, tintatxorrokoek formateatu egiten naute. Polaritate kontua izango da. Ea zelan dagoen. Um, elektromagnetikoa! Hasieran disketera urratu egiten du. Baina gero zirkuito inpresioetatik hedatzen da... Eta softwarean atzera egiten du. Disketeran siliziozko lurrina utziaz. Leuna, sakona, basafruituen ukitutxo batekin.

Batzuetan paralelismoak suertatzen dira. Hona hemen programa informatiko bat otoitz egiten:

Sinisten dut Edisonengan, Aita Ahalguztiduna, bonbila eta megafonoaren sortzaile; sinisten dut Bill Gatesengan, haren seme bakar, gure artean formateatu zena merkatuen kontrolerako. Sinisten dut Microsoftengan eta betiko iraungo duen bere sistema operatiboan orain eta beti, amen. Edison, Bill Gates eta Microsoft hiru weborri ezberdin baina benetakako txip bakarra.

Eta orain, zabor puxka baten filosofia:

Sinisten dut egun batean erreko nautela. Sinisten dut nire errautsak tximiniatik gora irtengo direla, dioxina laino trinko bat osatuko dutela, larre batean jausiko direla. Sinisten dut nire errautsetatik belar izpi kontaminatu bat sortuko dela, behi batek belarra jango duela, esne kutsatua emango duela. Sinisten dut aitatxo batek esnea erosiko duela, bere alabatxoari biberoian eskeiniko diola. Sinisten dut alabatxoak kakapirria izango duela, eta zakarrontzia kakazturiko painalez beteko dela. Eta hala, gu sortu ginen zabor beretik, sortuko dira besteak.

Hizkuntzarekin jolasteko gogo hori nire ikuskizun gehienetan agertzen da. Komunikazioa bilatzen dut, hizkuntzaren xuxentasuna baino lehenago. Hona hemen, munduko hitzak erabiliz egindako hizkera berria:

Patxo.

Eh? Kongo, Kongo, nola Y-emen?

Mikel.

Toki-on. Damasko. Hara, Anda luzia!

Patxo.

(Porroaz) Zer erretzen duzu, Sa-maria?

Mikel.

Ez, Kanada-bis.

Patxok hartu eta zurrupada bat ematen du.

Mikel.

Zelanda?

Patxo.

Hum. Costo Rico!

Mikel.

Holanda.

Patxo.

(Ezpainak igurtziz) Apur bat Eskozia egiten du.

Ankan hazka egiten du.

Mikel.

Non? Españan?

Patxo.

Bai. (Anka igurtziz) Eta Bernan.

Mikel.

Baina Letonia, ez?

Patxo.

Bai, Letonia eta Ascot gainera. Uff! A ze Verona! Zenbat?

Mikel.

Boston.

Patxo.

Macao! Veneton?

Mikel.

Bai, Veneton.

Patxo.

Siria sartzen badidazu... Ondo Kalkutatatu duzu?

Mikel.

Veneton.

Patxo.

A ze Timor!! Gero Arte, Lasarte.

Mikel.

Eh, eta dirua, Iliinoiz?

Patxo.

Biharmania edo EChile, Berlin dit.

Mikel.

Bai zera, Oran! Edo La habana sartuko dizut.

Patxo.

Benin. Tori-no. Quito, Peru?

Mikel.

Quito, bai.

Dirua ematen dio. Mikel aharrausika.

Patxo.

Zer, lo Gales?

Mikel.

Bai. Nilo. Su-ez?

Patxo.

Ez, ze nik Bart ze lo ona egin neuen. Bon bay.

Mikel.

Mozambique.

Patxo.

Mozambique?

Mikel.

Ah, ez! Gabon!

Edo bestela, hona euskaldunberrien sindromeak jotako bikotearen autodeskribaketa:

Patxo.

Eta jakin zazue: sekulako mesedea egin digute, bai horixe. Nik euskera ikasten puta madre pasatzen dut. Beno, hainbeste urte pasa ta gero, jada ez dakit besterik egiten. “*AEKdiktoa*” naiz.

Mikel.

Ni “*Euskaltegidependientea*”.

Patxo.

“*Baldintzomanoa*”

Mikel.

“*Subjuntibopata*”

Beno, ba, ni subjuntibopata edo baldintzomanoa ez, baina bai hizkuntzak orokorrean, euskerak partikularrean, eskeintzen dituen baliabideak erabiltzearen aldekoa. Baliteke batzuetan “zilegitasunaren” mugak apurtzea, baina horretarako gara sortzaileak eta ez administrazioko itzultzaileak.

Hizkuntzarekin jolastea atsegin dut, eta batez ere istorioak kontatzea. Kontatu nahi horrek bultzatzen nau. Ez dakit ondo ala txarto nabilen. Denborak jarriko gaitu nor bere tokian. Baina hori ez da neure arazoa.

Eta his torioak teatroaren moldez kontatu nahi ditut. Zine eta telebista zalea naiz, baina teatroa maiteago dut. “Una profesión de Putas” David Mamett-ek bere entsaio liburu batean definitu zuenez. Liburu hartan, Dick Clark izeneko batek hauxe dio: “Teatroa ez dago gaizki eta guzti hori, baina azken finean, arkakuso bat besterik ez da, elefante baten ipurdian”, eta honekin, suposatzen dut, teatroaren aulezia nabarmendu nahi

zuen bere ahadierik urkoenekin alderaturik, hau da, zinea eta telebista.

Konparazio bitxia, egon ere elefanteak baitira desagertzeko zorian daudenak. Arkakusoei dagokienez, bildur naiz mendetan eta mendetan hazka egiten jarraitu beharko dugula. Ni arkakuso zalea naiz. Behin telebistan National Geographic-eko erreportaia ikusi nuen, bertan animali tipiek egiten dituzten gauza harrigarriei buruz ari ziren. Dokumentalean ziotenez, arkakusoa munduko errekorra dauka salto olinpikoan: bere altura ehun aldiz saltatzeko gauza da. Esaiozue elefante bati salto egiteko.